



CARITASEN KANPAINA INSTITUZIONALA. 2020ko EGUBERRIA

**Gidoi Liturgikoa - Abenduko 4. igandea (2020/12/20)**

## **Sarrera**

Ongi etorriak Jaunarekin bai eta gure artean ere izaten dugun igandeko hitzordu honetara.

Eguberria iristear dago. Bizi dugun egoera den bezalakoa izanda ere, beti bezalako intentsitate eta sakontasunarekin egun hau bizitzera gonbidatu nahiko nizueke.

Eukaristia honetan, Elizbarrutiko Caritas kontutan hartzeko errealitate bat dela gogorarazi nahi dut, zeren eta Berari esker, bai karitateari eta baita anaitasunari ere, hau da, kristau bizitzaren eta eguberriaren oinarri diren bi zutaberi, bizia eman diezaiekegun.

## **Penitentzia-unea**

Eguberrian Jainkoaren errukiak intentsitate bereziaz dirdir egiten du. Eukaristiaren une honetan, harrera eta barkamenaren formapean egiten du.

Jainkoaren barkamena eskatuko dugu, bera imitatuz bata besteari barkatzen jakiteko. Jainkoaren barkamenak eta gure arteko adiskidetzeak lagun ditzala gure bizitzak Eguberri honetan.

1.- Jauna, askotan gure anai-arreba behartsuen artean zu aurkitzea ahazten zaigulako,  
ERRUKI JAUNA

2.- Kristo, beti eta batez ere orain Eguberrian eskuzabaltasunez partekatu nahi dugulako bizitzan zuregandik jaso duguna eta ez dugu egiten,  
CRISTO ERRUKI

3.- Jauna, zu jaio zinen bezala bizitzeko leku duinik ez dutenak



laguntzen oharkabetzen garelako,  
ERRUKI JAUNA

## IRAKURGAIAK

**1.- Irakurgaia, 2 Sam 7, 1-5.8b-11.16:** David erregeak Israelgo Jainkoareztat duina izango den tenplu bat eraiki nahi du. Azkenik, Salomon bere semeak eraikiko du. Tenplu hori judutarren miresgarritasun eta harrotasun arrazoi bihurtuko da. Kristaudentzat aldiz, miresmen eta harrotasun arrazoia tenplu bizen sostengua, mantenua eta hobekuntza da, pertsonak baikara Jainkoaren seme-alaba.

**2.- Irakurgaia. Rom16, 25-27:** San Paulok esaldi labur batzuen bidez azaltzen du Jainkoaren planek merezi dioten laudorio eta alabantza Kristoren misterioan burutuko dutenak hain zuzen. Paulorekin batera parteka dezagun Jesusen jaiotzak sortzen digun poza, hots, gure Jainkoa haur egina.

**Ebanjelioa. Lk,1, 26-38:** Ebanjelio honek gogorarazten digu Eguberriaren beste protagonista: Maria, Jesusen ama. Deikunde egunetik, Maria apalki eta arduratasunez prestatzen joan da Gabon Gauean gogoratuko eta ospatuko dugun momentua.

## Fededunen Otoitza

Batzuk besteengatik eskatzen dugu eta elkarrekin otoiz egiten dugu. Besteen beharrak ere gure beharrak dira. Hau da kristau Karitate arauaren betebeharra zeinek gailendu beharko lukeen benetan gure Eguberria.

1. Elizarengatik eta Eguberrirako prestatzen gaituzten komunitateengatik.

Pake, adiskidetze, laguntasun, solidaritate eta familiako gertutasunaren denbora emankorra izan dadin

*Eskatzen dizugu, Jauna*



2. Hainbeste hiltzen ari den, denoi mehatxatzen digun eta gertutasun, konfiantza eta amultsutasunarekin erlazionatzen galarazten digun Pandemiak laister amai dezala  
*Eskatzen dizugu Jauna*
3. Eguberrian gatazka eta bortizkeriak, mehatxuak eta liskarrak, jazarpen eta miseriak buka daitezela. Bere ordeztan, pertsona eta herrietan bake, justizia, itxaropen eta anaitasun sentimendu eta errealitate erne daitezen  
*Eskatzen dizugu Jauna*
4. Gomendatzen gatazka Jainkoari gure artean gaixotasun egoera, derrigorrezko konfinamendu, bakardadea. Pobrezia, segurtasun falta, senitarteko urruntasuna edota babes eta pake bila etortzen direngatik.  
*Eskatzen dizugu Jauna.*
5. Elizbarrutiko Caritas en ekintzaren arduradun sentitu gaitzela, eta gure laguntzarekin hainbeste anai-arreben behartasunak bidera daitezen Ebangelioaren arabera,  
*Eskatzen dizugu Jauna*

## AGURRA

Egun hau, ez dugu nahi beste Eguberri bat izatea. Jesus Haurrak bizi eta salbazioaren garaiak iragartzen dizkigu. Har ditzagun bere pertsona eta bere mezua, eta gure bizitza bere ekarpenez beterik ikusiko da.

Gogora dezagun bukatzeko, Elizbarrutiko komunitatearen konpromiso emankorrari esker, Caritasek lortu dezakeela pertsona behartu eta zaugarrietan, ebanjelioaren gorenko idea "inori ez diezaiola beharrezkoa falta bizitza duina izateko, Jainko gure Aitaren seme-alaben berezkoa den hori.

Milesker, zuen laguntza, otoitz eta babesarengatik.  
Eguberri On !